

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000000788

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0425

Xedea

COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz jabari publikoa erabiltzeko baimenen egoera.

Aurrekariak

Bakarra: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Argudioak

Lehenengoa: Aitatutako 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako neurrien ondorioz, ezin dira egintzak garatu gune publikoetan. Hori horrela, ezingo dira jabari publikoa okupatzeko eskariak baimendu egoerak irauten dauen bitartean, eta baimenduta egon diran kasuan, errebokatutzat emongo dira.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 3. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, erabagia ahalmena alkateari jagoko.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 17an Idazkaritza Saileko AOTk erabagi proposamena egin dau.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: Ezarritako Alarma Egoerak irauten dauen bitartean jabari publikoa okupatzeko baimenik ez emotea.


BIGARRENA: Alarma Egoera ezarri baino arinago emondako baimen guztiak errebokatutzat emotea, beti be egoera aldatzen ez dan bitartean.

HIRUGARRENA: Erabagi hau Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea eta interesdunei jakinarazotea.

**Sinadurea eta data**

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta dataa orri-oinean .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40003EDB800B0I6Y1E0X9O5</p>	<p>Sinadurea eta dataa</p> <p>ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2020 08:13:49</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0425</p> <p>Fecha: 17/03/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	---	--

